



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

DEKLARAZIO INSTITUZIONALA

Emakumeen kontrako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna 2016ko Azaroaren 25a

Gobernu Kontseiluak, 2016ko azaroaren 22an egindako ohiko bilkuran, honako erakunde adierazpen hau onartu du Azaroaren 25eko emakumeen kontrako indarkeriaren kontrako eguna dela eta.

Oraindik ere, XXI mende hasierako gure gizarte honetan, emakumeen kontrako indarkeriak gure eguneroko bizitzan dirau, eta, txarren-txarrena, emakume askoren bizitzak baldintzatzen jarraitzen du. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiaren ekarpenei esker, aurrera egin dugu arlo askotan, berdintasunaren arloan ere bai, baina barneratuta dagoen sustrai matxista dela eta, ezin izan dira egin guk nahiko genituzkeen bezalako urrats itxaropentsuak.

Zalantzarik gabe, arazo horrek guzti-guztiori eragiten digu, eta, beraz, aurre egin behar diogu. Era berean, gizarte maila guztiei eragiten die, gizarte maila guztietan, eta, beraz, pertsona bakoitzak du zeregin bat ezin itzurizkoa, banakakoa nahiz kolektiboa, eta halaber talde bakoitzak, eta erakunde bakoitzak.

Erakunde publikook konpromiso irmoa izan behar dugu neurriak ezartzeko indarkeria matxistaren prebentziorako, haren inguruko sentikortzea eragiteko eta haren kontra esku hartzeko. Agintaldi hau hasi zenetik, Arabako Foru Aldundiak hainbat programa abiarazi ditu indarkeria matxistari heltzeko hainbat arlotan: alde batetik, indarkeriaren arloan lerro estrategikoak ezartzen dituzten jarduerak, eta, bestetik, ekimen espezifikoagoak, herritarrentzako edo lehenasunezko kolektiboentzat.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Arabako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Foru Planaren ardatzetako bat da emakumeen kontrako indarkeria. Bertan jasotzen dira indarkeria matxistaren arloko neurri eta ekintza zehatzak, gorago aipatu ditugun hiru arlo horietako bakoitzari begira: jarrera eta jokabide matxisten prebentzioa, gure gizartean gertatzen den emakumeen kontrako indarkeriaren inguruan sentikortzea eta indarkeria jasaten duten emakumeen arreta hobetzea.

Gure erakundeak jendaurrean adierazi nahi du indarkeria matxistaren edozein moduren kontrako gaitzespen baldintzarik gabekoa, eta bereziki nabarmendu nahi ditu hain agerikoak ez diren indarkeriak, hala nola indarkeria sinbolikoa. Arau sozialak beterik daude mezuz, estereotipoz, irudiz eta sinboloz, zeinek gure gizartea arlo ongarriztatu bat bihurtu ahal baitute indarkeria matxistarako.

Arabako Foru Aldundiak gizartea animatu nahi du puntu lila erabil dezan emakumeen kontrako indarkeria gaitzesteko ikur gisa, gizarte osoaren konpromiso irmoaren ikur publiko gisa; batez ere gizonak animatu nahi ditu. Alde horretatik, erakunde honek herritar guztiak animatu nahi ditu elkarteek, kolektiboek eta beste erakunde batzuek indarkeria horiek salatzeke antolatutako ekitaldi ugarietan parte hartzera.

Amaitzeko, Gobernu Kontseilu honek dei egiten die gizarte osoari eta erakunde guztiei Aldundiaren Jauregiaren aurreko harmailetara etor daitezen, azaroaren 25ean, 12.00etan, 5 minutuz parte hartzera emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako elkarretaratze isil batean.

Gasteiz, 2016ko azaroaren 22a